

Topalekua

38zk. 2007ko otsaila

febrero 2007 - nº 38

pág. 1, 2 y 3: *Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 plan estrategikoak UPV/EHUren irudia indartu nahi du eta unibertsitatea gizartera gerturatu.*

pág. 4: *Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak onartu du ordain-sari-osogarrietarako deialdia.*

pág. 4: *Kontseiluko osoko bilkurak onartu ditu UPV/EHUren 2005eko kontuak.*

GIZARTE KONTSEILUAREN 2007-2010 PLAN ESTRATEGIKOAK UPV/EHUren IRUDIA INDARTU NAHI DU ETA UNIBERTSITATEA GIZARTERA GERTURATU

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak joan den abenduaren 18an onartu zuen datozen lau urteetarako Plan Estrategikoa. Plan horrek lau jarduera ardatz nagusi ditu eta honakoak lortu nahi dira: Unibertsitatearen irudia indartu, gizartearen presentzia hazi goi mailako ikasketetan eta Kontseiluaren zeregina indartu bi horien arteko zubi lanetan. Lortzeko, Plan Operatiboa planteatu du bederatzi ekintzarekin.

Plan hau Gizarte Kontseiluak onartzen duen bigarrena da, lehenbizikoa 2000. urtean onartu zuen, eta Robert Winter irakasleak koordinatu du, aurrekoa ere berak koordinatu zuen, eta Kontseiluko kide gehienek hartu dute parte.



Dokumentua sei atal handiren inguruan eratu da, eta horiek eratzen dute Kontseiluaren misioa, balioak, estrategiak, barneko eta kanpoko baldintzak, estrategiak lortzeko taktikak edo behar diren ekintzak eta datorren ekitaldirako plan operatibo anbiziotsu bat.

Kontseiluaren misioa

Misioa hiru alorren arabera berretsi da:

- Kontseilua-Unibertsitatea: Unibertsitatearekin elkarlana nahi du, Unibertsitatearen misioa burutzeko eta enpresen eta gizartearen finantzazioa bilatzen parte hartzeko.
- Unibertsitatea–Gizartea: bien arteko zubi izateko, lehenbizikoari igorrita bigarrenaren kezkak eta nahiak eta gizarteari azalduta Unibertsitatearen gaitasunak, kezkak eta beharrak.
- Kontseilua–Gizartea: EAEko, nazioko eta nazioarteko erakunde ekonomikoekin, profesionalekin, kulturekin eta instituzionalekin harremanak izan Kontseiluaren lana erraztuko duen informazioa bilatuta eta igorrita, Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lotakia baita Kontseilua.

Balioek Kontseilua definitzen dute UPV/EHUrekin elkarlanean aritzeko eta elkarri ulertzeko gaitasunagatik, kudeaketa erraztuko duen jarrera positiboagatik, elkarri dioten konfiantzagatik, Erretoreari eta honen gobernu taldeari ematen zaion babesagatik eta elkarri dioten leialtasun instituzionalagatik.

Ardatz estrategikoak


Ardatz estrategikoak lau ekintza handiren inguruan dabilta:

- Unibertsitateko kudeaketan lagundu: baliabideak identifikatuta, finantzazioan lagunduta, gizartearekin harremana erraztuta eta oraingo eta etorkizuneko aukerak hautemanda.
- Gizartearen ahots izan Unibertsitatean eta aldaketaren katalizatzaile: gizarteak lehiakortasunean, berrikuntzan, ikerketan, gaitasunetan eta ezagutzetan dituen beharrak identifikatuta eta maila guztietan bikaintasuna sustatuta.
- Kontseilua UPV/EHUr gerturatu: ulertzeko harremanak sustatuta, Unibertsitateak Administrazioarekin dituen harremanak erraztuta eta gizartea bere Unibertsitatearekin identifikatzea bultzatuta.
- Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana hobetu: Gizarteari Unibertsitateko baliabideetara sartzea erraztuta, Unibertsitatearen balioak eta irudia igorrita eta gizarteari eskaintzen dizkion produktuak eta zerbitzuak deskribatuta.

2007 Plan Operatiboa

Plan Estrategikoak 33 ekintza zehatz ere garatu ditu. Ekintza horiek Kontseiluak jarri behar ditu abian ardatzetan adierazitako helburuak betetzeko, eta 2007rako Plan Operatibotzat definitu dena konfiguratzeko dute 8k.

(3. orrian jarraitzen du)



Datorren ekitaldirako honako ekintzak aurreikusten ditu Plan Operatiboak, hala nola:

1. Unibertsitateko enplegu-eskaintzari buruzko behatokia diseinatu, abian jarri eta ustiatu.
2. Unibertsitateko ikasleen ezagutzei, gaitasunei eta konpetentziei buruz gizarteak zer eskatzen duen ikertu.
3. Unibertsitatearen lankidetzarekin ikerketako produktu eta zerbitzuen katalogoa egin; katalogo horretan adituen eta egindako lanen gida egongo litzateke eta marketing plana egiteko oinarria izango litzateke. Plan hori ezagutzak eskatzen dituztenei zuzendua legoke. Ahalegin horrek etorkizunean tresna juridiko bat sortzeko balio beharko du eta tresna hori funtzionalki eta ekonomikoki onuragarriagoa izango da Unibertsitatearentzat eta Gizartearentzat.
4. Unibertsitateko ekintzen informazio estatistikoa osatu, Unibertsitateak gizartearen esku jar ditzakeen baliabide fisikoen inbentarioa izango duena.
5. Unibertsitatearekin elkarlanean foro publiko bat sortu. Horretarako, Gizarte Kontseiluak programa bat babestuko du gizarteari balioak zabaltzeko foro hori garatuko duena.
6. Gizarte Kontseiluaren eta Unibertsitatearen arteko elkarriketa tresnak sortu, komunikazioa errazteko.
7. Barneko komunikazioa indartu Gizarte Kontseiluan.
8. Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren jarraipena instrumentatu, jarraipena egiteko erantzukizuna eman, hiru hiletik behin ebaluatu

garatutako ekintzak eta emaitzen berri eman Osoko Bilkurari.

Enplegu behatokia

Eguneko zerrendako beste puntu batean Osoko Bilkurak oniritzia eman zion UPV/EHU, bertako Gizarte Kontseilua eta Egailanen arteko hitzarmenaren zirriborroari honakoa egiteko: “Unibertsitateko titulazioa dutenen lan merkatuaren behatokia, 2002-2003 promozioari dagokiona”. Promozio horretan irtendako ikasleei inkesta bat egingo zaie telefono bidez.

Egiten den bosgarren inkesta da, eta horren helburua da kontrasta daitekeen informazioa lortzea agintari akademikoak bideratzeko eta erabakiak objektiboagoak izateko; ikasleei babesa eman lanerako trantsizioan; lan-merkatuaren jokaera, ezaugarriak eta hezkuntza sistemak produkzio-sistemarekin duen harremana ezagutu eta enplegu-politikan berariazko ekintzak egokitzeko eta definitzeko proposamenak egiteko tresna bat eduki.

Azkenik, Osoko Bilkurak 2007ko ekitaldirako Gizarte Kontseiluaren aurrekontua onartu zuen Batzorde Ekonomiko eta Finantzarioak hala eskatuta; aurrekontua 1.303.413,06 eurokoa da. Akordioan adierazten da ekitaldi horretan Kontseiluak bere erantzukizun sozial korporatiboa definitzeko formula aztertuko duela, hau da, bere zereginak gizartean, lan munduan eta ingurumenean sortzen duen betebeharrak eta konpromiso legal eta etiko multzoa; bere inguruarekin, garapen iraunkorrarekin, bere langileen ongizatearekin eta gizartearen aurrerapenarekin duen konpromisoa sustatu eta hazteko.

PLAN OPERATIVO 2007

- Diseñar, poner en funcionamiento y explotar un observatorio sobre la demanda de empleo universitario.
- Investigar las demandas de la sociedad sobre conocimientos, habilidades y competencias del alumnado universitario.
- Crear interlocución entre el el Consejo Social y la Universidad para facilitar la comunicación.
- Organizar reuniones periódicas entre representantes de la Universidad y el Consejo Social.
- Reforzar la comunicación interna del Consejo Social.
- Instrumentar el seguimiento del Plan Estratégico del Consejo Social.
- Confeccionar con la colaboración de la Universidad un catálogo de productos y servicios de investigación que incluye: productos y servicios, guía de expertos y trabajos realizados.
- Completar con la Universidad y publicar un anuario estadístico de las actividades de la Universidad.
- Colaborar con la Universidad en la creación de un foro público.

Kontseiluak banaka finkatuko du osagarrien zenbatekoa

GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK ONARTU DU ORDAINSARI-OSAGARRIETARAKO DEIALDIA

Urtarrilaren 26an UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Aparteko Bilkurak Deialdia onartu zuen unibertsitateko irakasleek beraien merezimenduen ebaluazioa eska dezaten irakaskuntza eta ikerketa arloan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko 209/2006 Dekretuak ezarritako gehigarritzko ordainsari-osagarrien aukera izan dezaten.

Ordainsari-osagarria jaso ahal izango du UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile orok, nahiz funtzionarioek nahiz lan kontratua dutenek, aipaturiko Dekretu horretan finkatutako baldintzak betez gero eta UNIQUALEk (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzen eta Egiaztatzen Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco) egindako ebaluazioa gaituz gero.

Gizarte Kontseiluaren akordioak ezartzen du deialdia EHAAan argitaratzen denetik bi hilabeteko epea izango dutela irakasleek ebaluazio hori eskatzeko. Behin UNIQUALEk merezimenduak ebaluatutakoan, Gizarte Kontseiluak, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak hala proposatuta, irakasle bakoitzak jaso beharreko osagarrien zenbatekoa modu banakatuan ezarriko du.

Bilkurak Deialdia onartu zuen honakoak aztertu ondoren: 209/2006 Dekretua, UPV/EHUko eta Gizarte Kontseiluko zerbitzu juridikoek igorritako txostenak, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Unibertsitatearen arteko akordioa ordainsari-osagarriak finantzatzeko eta ezartzeko eredu finkoa gara dadin eta Osagarriak arautzeko akordioa Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legean xedatutakoaren arabera.

Bestetik, Kontseiluak Batzorde bat sortzea erabaki zuen Plan Operatiboa 2007ren jarraipena egiteko, Gizarte Kontseiluak 2007-2010erako duen Plan Estrategikoaren markoan diseinatu. Horren zeregina izango da agiri horretan aurreikusitako ekintzak abian jartzea, burutzeko egutegia finkatzea, garatzeko behar diren harremanak ezartzea eta bakoitzaren eragina neurtzea.

Batzordean Kontseiluko Batzorde iraunkor bakoitzeko bi kide egongo dira eta Bilkurari hiru hilabeteko txostenak emango dizkio Plan Operatiboa 2007an aurreikusitako jarduerak burutzean dauden aurrerapenei buruz.

Euskal Herriko Unibertsitateak joan den ekitaldiko kontuen berri eman dio Gizarte Kontseiluari

KONTSEILUKO OSOKO BILKURAK ONARTU DITU UPV/EHUren 2005EKO KONTUAK

Abenduaren 27an egin zen Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak UPV/EHUren 2005eko aurrekontuen kontabilitateko egoera-orriak onartu zituen eta Unibertsitateari eskatu zion etorkizunean balantzea, ekonomiaren eta ondarearen emaitza-kontua eta memoria urte bakoitzeko lehenbiziko sei hilekoan aurkezteko, Estatutuetan aurreikusi bezala.

Osoko Bilkuraren akordioa UPV/EHUko kontuen azterketan oinarritzen da eta azterketa hori Kontseiluko Batzorde Ekonomiko-Finantzariora egin du. Akordioak adierazten du Unibertsitateak aurkezturiko 2005eko txosten ekonomikoan lehenbiziko aldiz dagoela ondare kontabilitateari buruzko eranskin bat, emaitza ekonomikoarekin eta osagaien azalpenarekin.

Bere gomendioetan Kontseiluak Unibertsitateari iradokitzen dio etorkizunean zehatz dezala berariazko

geldikinarekin zer saldo dagokien kredituei, baina ez edozein kredituri, baizik eta beraientzat aurreikusitako destinoa dutenei; txosten bat egin dezala -Kontseiluak iaz eskatu bezala- pasiboei eta kontingentzia fiskal eta legalei buruz; beste erakundeekin hitzartutako hitzarmenak eta kontratuak burutzeko egindako eragiketa guztiak erregistratu ditzala eta Memorian sar dezala Unibertsitateak parte hartzen duen erakundeei buruzko informazio garrantzitsu guztia.

Azken atalari dagokionez, akordioak adierazten du aurtengo kontuetan lehenbiziko aldiz sartu direla Fundazioen, Udako Ikastaroen, Euskoikerren eta Medikuntzaren Historiaren Euskal Museoaren urteko txostenak.

Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari igorri zitzaion akordioa kontuekin eta horien azterketarekin

